

Huntzak eta sasiak hartutako lau norma; pertsonen jarduera eteten bada, natura da, urte gutxian, nagusi. Zizurkilen ere. Aurri horiek mantenduaz, horien barrenean, zurezko etxola bat eraikitzea izan zen proiektuaren abiapuntua. Baina ez genuen zentzuzko prezio batean lan horiek guztiak egingo zituen lan-talderik aurkitu.


Abiapuntu horretatik abiatuta, proiektua berregin zen. Mendi hedadura handi bat oreka jasagarrian mantentzen zuen giza jarduera bat leheneratu, bertan bizitoki xume bat ezarrita ekosistema aberats baten zaintza bultzatzeko. Argia zen proiektuaren muina: ingurunean inpaktu minimo bat egingo zuen arkitektura bat sortzea inguruneaz gozatzeko, hura zaintzeko. Inpaktu minimo hori eraikuntza prozesuan bezala, eraikinen bizi-iraupen osora hedatuko da. Era beran, inpaktu hori positiboa izan dadin bilatuko da; egungo testuinguruan ez da nahikoa arkitektura jasagarri bat, leheneratzen duen arkitektura bat behar dugu, eta hor kokatzen da proiektuaren fokua.

Solairu bakarrean hedatzen da etxebizitza. Jatorrizko lurozruaren okupazioa mantentzea behartuta geunden. Gure aztarna murrizteko bolumen hau zultatu genuen: sarbidean sarrerako gune bat, bainugela eta sukaldeak zeharkako argizatzeko patio bizi bat eta hegoaldeko garbira orinetatutakoa terraza; eskuhartzea 31 m2 inguru murriztuaz. Gainerakoan eskema oso garbia da, eguneko espazio jarraitu bat hegoaldera orientatuta, bi logela ekialdera eta bainugela eta garbigela iparraldera.

Araitxikatu harriak obran bertan baliatu dira, behin aukeraketa eginda: kaxkarrenekin orubearen hobekuntza bat egingo da putzuz bete-zen zen kokapena zentzuz txukuntzeko; bestiak hormigoi ziklopeo modura zapatak egiteko erabili dira. Kortxoz isolatu da zolatua. Gainearen hormigoi zelularrezko karga horma perimetro bat eraiki eta honen barrenean zurezko egitura arinez eutsitako zelulosa isolamen-dua. Estalkiaren egitura zurezkoa da eta isolamendua, berriz, zur zuntzezkoa. Isolamendu guztiak landare jatorrikoak dira. Etxebizitzaren erdigunean kokatutako estufa batekin berotuko da etxea, ingurune naturalaren mantenu lanetatik jasotako biomasa erabi- liaz, eta aeroterminia modulu konpaktu batez berotuko da kontsumorako ura. Instalazio elektrikoa biokonpatiblea da, erabiltzaileen osasu- nean eragin kaltegarririk gabea. Instalazioa futbolbaitako autonomoan sortuko den kontsumorako energia osoa bateriatan pilatuko da. Etxebizitzaren estalkian jasotako euri-urak baliatuko dira kontsumorako, behin haiek bi andelatan pilatuta eta filtro sistema bidez zainduta. Euri arazketa zikloa urubean bertan ixten da landare bidezko arazketa modulu autonomo bat ezarrita. Egunero eta etorkizun hurbileko behar guztiak asetuta izateko prozesuak marxan dituen etxebizitza bizia eta autonomia. Sare orokorren beharrik ez duena eta naturaren ekarpenak zentzuz baliatzen dituen. Sinpletasun erradikal bat gure biziaren aztarnak leheneratzaileak izan daitezen planeta finitu, bezain eder, honetan.



Euri urak dira H₂O, lurlean
egon daitezkeen gai
kutsakorrekin kontakturik ez
duten urak. Iturri oparoena.
Estalkian jasotzen diren urak
filtro batetik iragazi ondoren
5.000 litroko bi andelatan
pilatzen dira lurpean,
ilunpean eta tenperatura kasik
konstantean. Kontsumorako
behar dena hartu, badaezpda
ere, UVA filtro sistema batetik
pasa eta berriro fisikoki
iragazten da familiaren ur behar
guztiak asetzeko.



Etxean baliatzen diren ur guztiak
arbastatze kutxatila batetik
iragazi ondoren landare bidezko
arazketa modulura bideratzen
dira. Bertan, ekosistema
oso batek ur horrek dituen
elementuak baliatuko ditu
bizitzara berririo itzularazteko.
Behin prozesu guztia iraganda,
lehen bailehen, ura bere ziklo
naturalera itzuliko da.

Zimenduak: bertako harriak baliatuaz zapata ziklopeoak
Zolata: kortxo isolamendua
Hormak: hormigoi zelularrezko karga hormak + zurezko azpiegitura + zelulosa isolamendua
Estalkia: zurezko egitura + zur zuntz isolamendua



20 modulu fotoboltaiko + instalazio isolatu batetarako inbertsorea + 2,4 kWh-ko 6 bateria.
Testuinguruaren arabera dimentsionatuta, etxebizitzak behar duen kontsumorako argindar energia guztia sortzeko eta biltegitatzeko aukera ematen duen instalazioa.

